

---

PRENTSA OHARRA

## **BILBAOARTEK LIBEN SVAART ARTISTAREN 'ERRE SUA IZAN ARTE' INAUGURATUKO DU**

Urazurrutia Aretoak ekintza artearen erakusketa hau urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra hartuko du

**(Bilbon, 2022ko urtarrilaren 21ean).** Bilboko Udaleko ekoizpen artistikoko zentroak, BilbaoArte Fundazioak, 2021ean beka jaso zuen Liben Svaart artistaren «*Erre sua izan arte*» urteko lehen erakusketa inauguratuko du gaur. Zentroko Ateak Zabalik jardunaldietan *fuego.beta* aurkeztu ondoren, *fuego* aurkezten du erakusketa honetan, giza ohiturei buruz ikasteko jakin-mina duen adimen artifizial mintzaker gisa. Ekoizpen propioko erakusketa honekin hasiko da Urazurrutia Aretoa azarora arte beteko duten bakarkako erakusketen egutegi berria.

«*Erre sua izan arte*»-k hiru espaziotan banatzen du aretoa: lehen gelaurrea izaera objektiboagoa duena, denboraren kontzeptuan ardatzarekin; espazio nagusia non *fuegok* eragiten duen instalazioa dagoen; eta azken aretoa, 2021eko Ateak Zabalik jardunaldietan gertatutakoa proiektatzen dena, *fuego.beta* ekintza.

Erakusketa honetako diziplina nagusia performancea edo ekintza-arte da, oraingo honetan komunikazioari, teknologiarari eta horien tresnei buruzko hausnarketa egiteko balio duena. Horretarako, *fuego*, Siri edo Alexa gogorarazten duen adimen artifizial bat aurkezten du, gorputzaren iragazkitik *machine learning* kontzeptua pasatzen duena, ordenagailuei datu masiboetan patroiak identifikatzeko eta iragarpenak egiteko gaitasuna ematen dien diziplina.

Saioa Olmok, Libenen mentore eta erakusketa-proposamenarekin batera doan katalogoaren sarrerako testuaren egileak, *fuego* deskribatzen du “poetikoki transhumanoa” den izaki gisa. Pertsonaia horrek teknologikoki gogorra denaren "zer" (*machine learning*, adimen artifizialak, algoritmoak eta laguntzaile iragarleak) eta teknologikoki biguna denaren "nola" (elkarrizketa-portaeraren inguruko dinamika performatiboak) nahasten ditu.

Publikoa animatzen da giza ordenagailu hibrido honekin hitz egitera, hitz berriak irakastera eta kontzeptuak ulertzen laguntzera. Artistak, nolabait, ikusleari makina bitxi batek egingo lukeen bezala pentsatzeko iradokitzen dio. Svaarten arabera, «*Erre sua izan arte*» izenburuak mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko gonbita bezala dakar, egoera batetik bestera aldatzera.

Publikoa erakusketara joaten den bakoitzean, dagoen egunari eta denboraren igarotzeari buruzko erreferentzia bat aurkituko da, baina baita interakzio bakoitzarekin zerbait berria ikasten duen adimen artifizial bat ere. Horrela, erakusketa espazio bizi eta aldakorra bihurtzen da, osatzen duten elementuak aldatzen ez badira ere.

Inaugurazioa (urtarrilak 21, 19:00etan) musika elektronikoko kontzertu batekin hasiko da, erakusketaren gai berarekin: komunikazioa, teknologia eta etorkizuna. Aretoa astelehenetik ostiralera bisitatu ahal izango da 17:30etatik 20:30etara otsailaren 18ra arte. Gainera, erakusketa performatibo hau astelehen, asteazken eta ostiralero aktibatuko da (urtarrilaren 24, 26, 28 eta 31ean; eta otsailaren 2, 4, 7, 9, 11, 14, 16, 18an). *fuego* ez dagoenean, aurreko eguneko ekintza proiektatuko da.

### **SEGURTASUN-NEURRIAK**

Abenduaren 28ko 51/2021 Dekretua indarrean sartzean, Bilboko Udalak barrualdeetan antolatutako jarduera guztietan edukieraren %60ko muga egongo da. Era berean, nahitaezkoa izaten jarraituko du:

- COVID Ziurtagiri Digitala (QR) eta NANA aurkeztea, barruko ikuskizunetara sartu ahal izateko.
- Musukoa ekitaldi guztietan erabiltzea.

Pandemia hasi zenetik egin den bezala, Bilboko Udalak jarduera-protokoloak egokiko ditu programatutako jardueretan, osasun-agintariek une bakoitzean hartzen dituzten erabakien arabera.

### **ARTISTARI BURUZ**

**Liben Svaart** (Leioa, 1994) soinu- eta performer-artista da, musikari autodidaktaz gain. UPV/EHU Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboko Masterrean graduatu zen, eta bertan garatu zuen Saioa Olmoren tutoretzapeko *fuego*, proiektu honen aurrekaria. Ikus-entzunezkoen eta performatiboan arloan lan egiten du, sentsibilitatetik eta inframince-tik. Pasioaren eta kalkulaturakoaren arteko oreka aurkitzen du, bai animazio-piezetan, bai ekintzetan. Bere prozesuak soinuaren bidez gidatzen ditu, eta horrek garrantzi handia du bere proiektuetan.

### **Informazio gehiago eta elkarrizketak**



**BilbaoArte Fundazioa**

Prensa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)

---

NOTA DE PRENSA

## **BILBAOARTE INAUGURA 'ARDE HASTA QUE SEAS FUEGO' DE LA ARTISTA LIBEN SVAART**

La Sala Urazurrutia acogerá esta exposición de arte de acción entre el 21 de enero y el 18 de febrero

*(Bilbao, 21 de enero de 2022).* El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao la Fundación BilbaoArte inaugura hoy su primera exposición del año «*Arde hasta que seas fuego*» de la artista Liben Svaart, becada en el centro durante 2021. Tras la presentación de *fuego.beta* en las jornadas de Puertas Abiertas del centro, esta exposición acoge a *fuego* que se presenta ante el público como una inteligencia artificial conversacional con curiosidad por aprender sobre las costumbres humanas. Con esta muestra de producción propia, se inicia el nuevo calendario de exposiciones individuales que llenarán la Sala Urazurrutia hasta noviembre.

«*Arde hasta que seas fuego*» divide la sala en tres espacios: una primera antesala de carácter más objetual centrada en el concepto del tiempo; el espacio principal en el que se encuentra la instalación en la que *fuego* acciona; y la última sala, donde se proyecta lo ocurrido en Puertas Abiertas 2021, la acción *fuego.beta*.

La disciplina protagonista de esta exposición es la performance o arte de acción, que en esta ocasión sirve a una reflexión sobre la comunicación, la tecnología y sus herramientas. Para ello presenta a *fuego*, una inteligencia artificial que recuerda a Siri o Alexa, que pasa por el filtro del cuerpo el concepto del *machine learning*, la disciplina que dota a los ordenadores de la capacidad de identificar patrones en datos masivos y elaborar predicciones.

Saioa Olmo, artista, mentora de Liben, y autora del texto introductorio del catálogo que acompaña la propuesta expositiva, describe a *fuego* como un ser poéticamente transhumano que mezcla lo tecnológicamente duro del qué (machine learning, inteligencias artificiales, algoritmos y asistentes predictivos) con lo tecnológicamente blando del cómo (dinámicas performativas en torno al comportamiento conversacional).

El público es animado a conversar con este híbrido humano-ordenador, enseñarle nuevas palabras y ayudarle a comprender conceptos. De algún modo, la artista sugiere al espectador que piense como lo haría una *máquina curiosa*. Según Svaart, el título «*Arde hasta que seas fuego*» se traduce como una invitación a ver el mundo desde otro punto de vista, al cambio de un estado a otro.

Cada vez que el público vaya a la exposición se encontrará una referencia al día en el que se encuentra y al paso del tiempo, pero también con una inteligencia artificial que aprende algo nuevo con cada interacción. La exposición se convierte así en un espacio vivo y variable, pese a que los elementos que la componen no cambien.

La inauguración (21 de enero, 19:00 h.) arrancará con un concierto de música electrónica con la misma temática de la exposición: la comunicación, la tecnología y el futuro. La Sala podrá visitarse de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 hasta el 18 de febrero. Además, esta exposición de carácter performativo será activada cada lunes, miércoles y viernes (24, 26, 28 y 31 de enero; y 2, 4, 7, 9, 11, 14, 16, 18 de febrero). Cuando *fuego* no esté, se proyectará la acción del día anterior.

### **MEDIDAS DE SEGURIDAD**

Con la entrada en vigor del Decreto 51/2021, de 28 de diciembre, en todas las actividades organizadas por el Ayuntamiento de Bilbao en interiores existirá una limitación de aforos del 60%. Asimismo, seguirá siendo obligatorio:

- presentar el Certificado Covid Digital (QR) y DNI para poder acceder a los espectáculos en interiores.
- el uso de mascarilla en todos los eventos.

Tal y como se ha hecho desde el inicio de la pandemia, el Consistorio bilbaíno irá adaptando los protocolos de actuación en sus actividades programadas en función de las decisiones que vayan adaptando las autoridades sanitarias en cada momento.

### **SOBRE LA ARTISTA**

**Liben Svaart** (Leioa, 1994) es artista sonora y performer, además de música autodidacta. Es graduada en el Máster en Arte Contemporáneo, Tecnológico y Performativo por la UPV/EHU donde desarrolló el antecedente de este proyecto *fuego*, tutorizado por Saioa Olmo. Trabaja en el ámbito audiovisual y performativo desde la sensibilidad, desde lo infraleve. Encuentra el equilibrio entre lo visceral y lo calculado tanto en sus piezas de animación como en sus acciones. Guía sus procesos mediante el sonido, que guarda una senda importancia en sus proyectos.

### **Más información y entrevistas**



**Fundación BilbaoArte**

Prensa y Comunicación

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)